

Finantziazioa. Alegiako Udala: 1.404,57 €

Azken urteetan egin izan duen bezala, Alegiako Udalak aurtun ere Ixil eskualdeko proiektuak babestu ditu. Helburua Guatemalako haurrak heztea da, hezkuntza material berrien bidez landa inguruetan ikasteko giro atsegina sortuz.

Proiektuaren helburu nagusia bost ikastetxetako 35 ikaslerentzako eskola materiala erostea eta Salquil Grande herrixkako ikastetxearen teiltua konpontzea da.

Horretarako, Asaunxileko zuzendaritzak, hezkuntzako koordinatzailearen laguntzarekin, ikastetxeei eta haien egoerari buruzko diagnostikoa egin du ikastetxeen profila lortu eta haiak bisitatzeko. Bertan, maisu-maistrekkin bildu dira, beharrezko baliabide lehentasunak finkatzeko.

Ikastetxe guztiak bisitatu ondoren, jarduteko premia maila zehaztu da. Bestalde, materialak erosi eta banatu aurretik, hitzarmena sinatu dute maisu-maistrek eta Asaunxilek.

Materiala erosteko, hiru salgune desberdin bisitatu dira, preziorik onena lortze aldera. Prezio onena lortutakoan, materiala erosi da: koadernoak, bolalumulak, flautak, kalkulagailuak, etab.

Nabarmentzekoa da Nufed Salquil Grandeko egitasmoan; xafla eta iltzeen bidez teiltua konpondu zela, eta 25 ikasmahai eraman zirela bertara.

Proiektua amaitzeko, berriz ere bilera egin da komunitate bakoitzeko ordezkariekin, materialak jaso dituztela jakinarazteko agiria sina dezaten. Agiri hori ikastetxeko zuzendariak, komunitateko alkateak eta prozesu honetan parte hartu duten guztiek zigilatuko dute.



Escuela de Tzinap

